

INTERSEXUALAK

MEDIKUNTZAK EZABATURIKO GORPUTZAK



LARRUN #271

“BAIMEN LIBRE ETA INFORMATUAN” OINARRITUA IZAN DADILA ESKU-HARTZEA

EGILEA | **JENOFA BERHOKOIRIGOIN**

AZALA | **JOSEBA LARRATXE JOSEVISKY**

Sexuaren definizio bitarra berrikusi beharrean, nahiago gorputz intersexualak berrikusi, definizioak bere horretan segitzeko gisan. Askotarikoak dira sexu bariazioak –intersexualitateak– eta genitaletan, gonadetan edota kromosometan oinarrituriko dikotomia baino askoz zabala-goa da errealitatea. Ikuspegi patologizatzaile bati segi, 1955. urtean abiatu eta 1970eko hamarkadan sistematiko bihurtu ziren pertsona intersexualentzako operazioak edota hormonoterapiak. Gaur egun ere segitzen dute medikuntzaren esku-sartzeek. Alta, pentsa zitekeen azken 70 urteetan izandako gertakizun zenbaittek jarrera aldaraziko zietela: oinarrian dagoen Hopkins Paradigmaren gainbehera; 1990eko hamarkadan abiatutako intersex pertsonen borroka; albo-kalte dramatikoaren testigantzak;

feminismoak egindako ekarpenak; giza eskubi-deen aldeko egiturek intersex pertsonen aldarriekin bat egin izana; arrazoi medikorik ezean umeen “mutilazioen” bukaera galdetu izana Nazio Batuen Erakundeak...


Bariazioen eraginez osasuna arriskuan baldin bada, eskerrak medikuntzari. Arazoa da osasuntsu diren gorputzetan ere eskua sartzen duela, norma eta estereotipo sozialei erantzuteko. Oinarrian adostasun libre eta informatua izatea. Horra intersex aktibistek eskatzen dutena. Osotasun fisikorako eskubidea dutelako, sexu definizio normatutik at izanik ere. Bi intersex aktibistei egindako elkarrizketetan oinarritzen da LARRUN hau. Horretaz guztiaz hitz egin digute, medikuek zaurituriko gorputz horietatik. Haien bizipenak ezin dira orokortu, egia da, baina ezin dira ere isildu eta gorde.

LARRUN HILABETEKARI MONOGRAFIKOA · ARGIAren 2.768 zenbakiarekin banatua.

JABEA: KOMUNIKAZIO BIZIAGOA S.A.L. **HELBIDEA:** ZIRKUITU IBILBIDEA, 15. PABILOIA 20160 LASARTE-ORIA **TELEFONOA:** (00 34) 943 37 15 45

POSTA ELEKTRONIKOA: LARRUN@ARGIA.EUS **INPRIMATEGIA:** ANTZA KOMUNIKAZIO GRAFIKOA **DISEINUA:** MAITANE GARTZIANDIA

2022ko otsailaren 27a



KROMOSOMETAN

oinarrituriko sexu dikotomia
–emakumezkoentzat XX eta
gizonezkoentzat XY– baino
zabalagoa da errealitatea.

Norberarekin bakean izateko baldintza gorputz normatibo bat izatean datzala kontentzituak dira medikuak; eta errotik uste dute norbanako orok duela naturalki bere gorputza normaren barnean nahi. Arazoa da norbanakoaren ordez erabakitzen dutela”. Janik Bastien-Charleboisen hitzak dira. Definizio normatiboan sartzen ez den gorputz bat tokatu zitzaion: gorputz intersexuala¹ du. Pairatu ditu medikuntzaren irakurketa eta honek dakarren bidea: operazioa, emakumezkoaren sexu-definizio tradizionalan sarrarazteko. “Suertedun” kontsideratzen da alta, operazioa saihestearen alde eraman zuelako bataila bere amak; 17 urterekin bere kabuz hartu zuen erabakia, “jendartearen eta medikuntzaren presiopean plegaturik”. 1970eko hamarkadan sortutakoak, 31 urterekin ikasi zuen gorputz intersexuala zuela, OII Nazioarteko Intersex Erakunde deitu egituraren sortzaile Curtis Hinkle aktibistaren konferentzia batean kontzientzia harturik. Orduz geroztik, aktibismoan dabil Montrealeko unibertsitariora, baimenik gabe bideraturiko interbentzio kirurgiko

eta hormonalen bukaeraren alde. Interbentzioa bideratu nahi zaion horren baimenak “librea eta informatua” izan behar duela dio: informazio guztiak jasota eta norberetik presiorik gabe emandakoa.

Nazio Batuen Erakundeak (NBE) horrela definitzen du intersexualitatea: “Gizonezko eta emakumezko gorputzen definizio tradizionalari ez dagozkion karaktere sexualekin (genitalak, gonadak edota kromosomak) sorturikoak dira pertsona intersexualak”. Bariazio natural multzo zabala izendatzen du terminoak; jaiotzan edo nerabezaroan ikusgai izan daitezkeenak, bariazio kromosomiko batzuk ez dutelarik kanpozeinurik ere. 2005az geroztik, “sexugarapenaren nahastea” –*Disorders of sex development* edo DSD– izendapenarekin izendatuak dira intersexualitate bariazioak. Datu ofizialei segi, sortu berrien %1,7 da intersexuala, mila sortzeetatik hamazazpi.

Gutxiago ala gehiago, hurbilagotik ala urrunagotik, denok dakigu zer nolako pisua duen sexuaren eta generoaren eraikuntzak. Gurea binarismoan antolatua da: gizonezkoak alde batean, emakumezkoak

bestean; bakoitzari loturiko genero eta sexu ezaugarri zurruneekin. Sexuari dagokionez, kromosomek bideratu banaketari segi –gizonezkoentzat XY; emakumezkoentzat XX–, bi aldeei doazkie organo genital propioak –gizonezkoentzat zakila, barrabilak, prostata, semen-besikula, epididimoa eta Cowper guruina; emakumezkoentzat, ordea, alua, bagina, uteroa, umetoki-tronpak, obarioak eta Skeneren eta Bartholinen guruinak– eta gameto propioak –gizonezkoentzat espermatozoideak eta emakumezkoentzat obozitoak–. Definizio horrek “bigarren mailako sexu-karakterek” dakartzki, hormona-inguruneak eragindakoak eta sexu eta genero definizio tradizionalan pisu handikoak. Bada, sexua bi multzotan sailkatzen duen sistema hori gezurtatzen duten gorputzak dira intersexualak. Ez da emakumezko edo gizonezko ez direla sentitzen –batzuk bai, baina hori, intersexualak ez diren ere gertatu daiteke–, baizik eta gizonezkoaren eta emakumezkoaren banaketa dikotomikoa zangoz gora jartzen dutela, ezaugarri biologikoak eta morfologikoak nahasiz.

1: “INTERSEXUAL” hitza geroz eta gutxiago erabilia da nazioartean, sexu orientazioaren konnotazio gehiegi duelako eta “intersexuatu” erabili ohi dute. Erreportaje honen iturrian diren bi ahotsek “intersexuatu” erabili arren “intersexual” erabiliko dugu, euskal hiztegieta hau agertzen delako.



Janik Bastien-Charlebois, erreportajea osatzeko elkarrizketatu intersex pertsona.

Gerta daiteke pertsona batek emakume-itxura arautua izatea sortzerakoan, baina bere baitan barrabilak ukaitea gordeirik. Kalkulatutakoaren arabera, sexu-organotako anomaliak 4.500 sortzetatik batean gertatzen dira (Hughes eta al., 2006) eta bariazio intersexualen gutxiengoak dira: 500 pertsona intersexualetatik bat, Europako OII egituraren arabera. Beste bat gizonezkoa sailkatua izan daiteke, XY kromosomoak ukanik, baina bere gorputzak androgenoei erresistentzia erakutsirik, itxuraz emakumezkoaren osagai normatuak izanen ditu –“androgenoekiko sentikortasun ezaren sindromea”, 1/13.000 sortzeren gain, ISNaren datuen arabera–. Gerta daiteke emakumezko identifikatuak ohikoa dena baino androgeno gehiago ekoiztea eta gizonezkoei lotzen zaizkien karaktereak garatzea edo klitoriaren tamaina ohikoa baino handiagoa izatea –“Giltzurrun gaineko hiperplasia”, 1/13.000 sortzeren gain–.

Gerta daiteke norma baino zakil ttipiagorekin edo barrabilik gabe sortzea, azkenean XY kromosomez gain, gutxienez X bat gehiago duelako –“Klinefelter sindromea”, iturrien arabera, 1/500 edo 1/1.000).



XX. MENDE HASIERAN BEREGANATU ZUEN JAIOBERRIAREN SEXUAREN IDENTIFIKATZEKO FUNTZIOA MEDIKUNTZAK

30 tipologia baino gehiago daude intersexualitatean. “Atipikoak eta ezegokiak dira gure gorputzak medikuntzarentzat”, dio Bastien-Charleboisek, autoritate honen arabera

klitori bat handiegia izan daitekeelako eta zakil bat berriz ttipiegia.

Medikuntzako deontologiari segi, arriskuan dagoenari laguntza bideratu behar dio medikuak. Hori horrela, bariazio batzuk pertsonaren bizia arriskuan jarriz gero interbentzioa beharrezko da. Kontua da –eta horretan daukagu auzia– zaku berean sartzen dituztela kasu patologikoak eta osasuntsuak: guztiak dira konpondu beharreko “nahasmenduak”, gizonezko eta emakumezko banaketa bitarrear kokatzeko gisan. 1970eko hamarkadatik goiti orokortu ziren tratamendu kirurgikoak eta hormonalak. Gaur egun oraindik bideratzen dira, nahiz eta hastapenetan baino mediku gehiagok eman interbentzio-ezaren aukera.

Defendatzaileek diote tratamenduak hobetu direla, operazio-tekNIKAK ez direla hastapenetakoak. Ez du hori gezurtatzen Bastien-Charleboisek: “Bai teknikak hobetu dira. Erran dezakezu ‘hobeki mutilatzen’ dutela, baina segitzen

dute mutilatzen. Auzia ez datza horretan: pertsonaren baimen libre eta informatua izatea nahi dugu". Haien gorputzen patologizazioa bukatzea nahi dute intersex pertsonek², besterik gabe, osasuntsu daudelako –bariazio bakar batzuk arriskugarriak izanik, komeni da xeheki begiratzea bariazioari, jakiteko zer duen oinarrian: osasuna ala estetika–. Behin hasiz gero, interbentzio kirurgikoak eta hormonalak luzaz pairatu behar izaten dituztelako askok; denboran gorputza aldatuz doalako edota konplikazioak agertzen zaizkielako. Izan daiteke jaioberrian egindako operazio bakarra, ia ondorio psikologiko eta fisikorik gabekoa, eta eskerrak. Baina ez da guztiontzat horrela –esku artean dauzkagu bi testigantza, eta bilatuz gero anitz daude interneten–. 2020ko AEBetako ikerlari Amy Rosenwohl-Macken ikerketak ondokoa azaleratu zuen: 198 heldu intersexualen artean –orain arte dagoen lagin esanguratsuenetarikoa– %43ak du osasun fisikoa “txarra edo erdipurdikoa”; buru osasunarentzat %53ak du “txarra edo erdipurdikoa”, eta %32 entseatu da suizidatzen. Medikuen partetik zifra gutxi daude, tamalez.

Zaila da datuen eskuratzea, baina Bastien-Charleboisen determinazioari esker lortu da jakitea adibidez Quebecen –8,5 milioi biztanle–, 2015az geroztik organo genitalen 1.380 operazio baino gehiago burutu dituztela hamalau urtez petikakoetan, hauetarik 838 bi urte baino gutxiago daukatenetan. 838 hauetarik %73tan hipospadiasaren moldaketarako da, hau da, pixa ateratzeko zuloa zakilaren puntan kokatzeko, “pixa zutik egiteko gisan” –ez da broma, hau da gurasoei ematen zaien arrazoia–. Arrazoi estetikoak agertzen zaigu ere aluaren inguruko



Lawson Wilkins medikua (beltzez) dugu interbentzioak sistematizatzeko erabakiaren oinarrian. Ondoan dauka John Money ezaguna ere.

ezpainen tamaina ttipitzeko bideraturiko 35 operazioetan.

**30 URTE BESTERIK
EZ DITU INTERSEX
MUGIMENDUAK
ETA URTEZ URTE
ZABALDUZ DOA,
GORDERIK ATXIKITAKO
ERREALITATEA
BISTARAZIZ**

Herri gehienetan bideratzen dira oraindik osasun-arrazoi gabeko interbentzioak. Funtsean, Frantziako Estatua kritikatu zuen 2016an NBERen Torturaren Aurkako Komiteak, eta 2018an Nazio Batuen Hau-

rren Eskubideei buruzko Komiteak zuen Espainiako Estatuaren jarrera salatu, “giza eskubideak urratuz”, adostasunik gabeko “praktika kaltegarriak” bideratzeagatik.

MALTAKO ADIERAZPENA

2013an izenpeturiko Maltako Adierazpenak garrantzia handia du auzi honetan. Pertsona intersexualen ordezkari diren 30 egiturek ondokoa adierazi zuten: “Ozen adierazi nahi dugu intersex pertsonok benetakoak garela, eta munduko eskualde eta herrialde guztietan gaudela. Beharrezkoa da intersex pertsonen sostengatzea, beraiek bideratu ditzaten dagozkien lege, politika eta gizarte aldaketak. Intersexuon Lehen eta Bigarren Nazioarteko Foroen printzipioak berresten ditugu, intersex pertsonon aurkako bereizkeriak bukatu daitezten, eta gorputzaren osotasunerako eskubidea, autonomia fisikoa eta autodeterminaziorako eskubidea bermatzeko”.

²: Izaera intersexualaz kontziente, medikuntzaren postura patologizatzailea salatuz, intersexualitatea modu baikorrean bizi duten pertsonen identitate politikoa definitzen du intersex terminoak.

Bide horretan, sexu karaktere bariazioen “despatologizazioa” galdetzen dute, adibidez, Munduko Osasun Erakundeak (MOE) Gai-xotasunen Sailkapenetik kentzea intersexualitatea. 2019an MOEk berriro sailkapenean “arazo” gisa segitzen du, sexua “normalizatze-ko” betekizuna berretsiz. Europako Kontseiluko Giza Eskubideen komisario Dunja Mijatovick gogor salatzen du: operazio hauek “tratu krudel eta ahalkegarriak” izan daitezke, ez baldin badira medikuntza ikuspegitik justifikatuak. Europar Batasuneko Giza Eskubideen Agentzia eta Europako Parlamentua ildo beretik doaz: “Pertsona intersexualen baimen libre eta informaturik gabeko operazioen debekatzea gomendatzen dugu”. Amnesty International eta Human Rights Watch egiturek ere “giza eskubideen urratetatzat” daukate.

Intersex aktibismoaren emaitza da iritzi hauen plazaratzea. 30 urte besterik ez ditu mugimenduak eta

“

**BAI TEKNIKAK
HOBETU DIRA,
'HOBEKI MUTILATZEN'
DUTE. AUZIA EZ
DATZA HORRETAN:
PERTSONAREN BAIMEN
LIBRE ETA INFORMATUA
IZATEA NAHI DUGU”**

JANIK BASTIEN-CHARLEBOIS

urtez urte zabalduz doa, gorderik atxikitako errealitatea bistaraziz. Inbisibilizazioarekin bukatzea eta

tabua apurtzea, horra duten beste helburu politiko bat.

1993an osatu zuen Cheryl Chaskek AEBetan ISNA Intersex Society of North America izeneko lehen elkarte, Anne Fausto-Sterling biologista feministak *The Sciences*-en plazaraturiko *The Five Sexes: Why male and Female are not Enough* (“Bost sexuak: zergatik arra eta emea ez diren nahikoak”) artikuluari erantzunez. “Urrunago joanen naiz baietsiz infinituan mol-dagarria den *continuum* bat dela sexua, kategoriek inposaturiko hertsapenak gainditzen dituen”, Fausto-Sterlingen hitzetan. Garrantzia handiko ekarpena izan zen, zientzia munduan oihartzun handikoa gainera. Borroka horren historiari lotu aitzin, begira diezaiozun, laburzki bada ere, medikuntzak gorputz intersexualei buruz izandako jarrerari.



Maltako Adierazpenaren izenpetzaileak, 2013an (intersexday.org).



Osasun-arrazoirik gabeko interbentzioen bukaera lortzeko dabilta borrokan intersex pertsonak.

“GORPUTZ ANORMALAK”

“Hermafrodita”, “intersexuala” eta orain “sexu garapen nahastea”. Hitz ezberdinak erabili izan dira gorputz hauek izendatzeko. Zehaztu beharra dago XX. mendea arte ez zirela medikuen esku artean, eta sistema juridikoak zuela finkatzen sexua. “Berez ez doa medikuntzak pertsona intersexualak bere gain hartzea, prozesu sozio-historiko baten emaitza da”. XX. mende hasieran medikuntzaren autoritatea indarra hartuz joan zen, modernizazioarekin batera. Jaioberriaren sexuaren identifikatzeko funtzioa bereganatu zuen, batez ere sortzeak emaginen eskuetatik ospitaleetara pasatzearekin. Gorputz intersexualen kontrola orduan hasi zen, “benetako sexua” –gizonezkoa edo emaku-

mezkoa– definitzeko ezaugarriak finkatzeko erronkarekin. Lehenik gonadetan jarri zuten baldintza, baina laster konturatu ziren ez zela baitezpada argi, demagun, bien ezaugarriak dituzten obotes-tisen kasuan. Barne-sekrezioetan –hormonak izendatzeko erabilia zen terminoa– jarri zuten soa, nerabezaroa itxoin behar zela ziotelarik mediku batzuk. “Mediku batzuen frustrazioa eragiten zuen, aniztasun handia zegoelako praktketan, kasu kontraesankorrekin gainera. Tarte zalantzataia uztearekin ez ziren eroso, ume intersexualak ahal bezain laster ordenan sarrarazi behar zirela zioten”.

The Johns Hopkins medikuntza unibertsitateko Lawson Wilkins ospetsuak zabaldu zuen esku-hartzeak ahal bezain goiz egin beha-

rraren segurtamena. Ondoko Harvard Unibertsitatean tesia idazten zebilen John Money besapean hartu eta 1955ean finkatu zuten gaur egun oraindik eragina duen postura: identitatea plastikoa da, “psikosexualki neutroa” da jaioberria, baina berehala eta zorrozki bideratu behar zaio genero bat. Ahal bezain goiz “konpondu beharreko anomalia” da intersexualitatea –Moneyren arabera, hemezortzi hilabeteak aitzin eta gehienik bi urteak arte–. Nola? Faloari begiratu eta bagina-penetrazio bat egiteko nahiko handia bada, orduan gizonezko sexua esleitu, bestela emakumezkoa. Ikuspegi heterosexual eta heteroarautua, bete-betean. Hopkins Paradigma izenez ezaguna da 1970eko hamarkadan sistematizaturiko esku-sartze hau.


1990EKO HAMARKADA: LEHEN ARRAKALAK

Moneyren eskutik pasatako David Reimer umearen bizipenen argiratzek eragin zuen sekulako lurrikara 1997an. 1965ean, osasun arazo batzuegatik zirkunzidatu behar zituztela Reimer biki sortu berriak, Davidi nahigabeen kaltetu zioten zakila. Arazoa Moneyri aurkeztu eta gurasoei argi utzi zien zakil hondatu batekin gizonezko ezin zitekeela izan. Emakumezkoa izan behar zenez, 22 hilabeterekin operatu, Brenda izendatu eta emakumezko bezala hezten hasi ziren, hormonoterapia gehituz nerabezaroan. “John/Joan kasua” izenpean, Daviden kasuaz informatzen segitu zuen Moneyk, bere teoria frogatzeko kasu interesgarria zitzaiolako: gorputz “normaletan” ere bideratu zitekeen “sexu zuzenketa”. Daviden bizia ordea ez zen Moneyk goraiatzatzen zuena: traumak, depresioak, emakumezkoa ez sentitzea, gurasoei abisua eman izana suizidatuko zela Moneyren ikustera berriz joanez gero. Hamabost urte zituela, bere historia aitortu zioten gurasoek. Hortik aurrera gizonezko identifikatu zen eta interbentzio kirurgiko eta hormonalak abiatu zituen oinarritzko gorputzera itzultzeko. 1997an berea kontatu zion Milton Diamond sexologo ospetsuari, eta baimena emanik, honek zabaldu zuen egia. John Colapintok argitaraturiko *As Nature Made Him: The Boy Who Was Raised as a Girl* (“Naturak egindakoa: neska baten heziketa jaso duen mutikoa”) liburuan xeheki kontatzen da nola Moneyk ez zituen kontuan hartzen Reimeren bizipenak eta gaizki-izateak. Lurrikara eragin zuen medikuen artean, baita jendartean ere, lehen aldikoz ukan zelako gordetako errealitate honen berri. 38 urterekin suizidatu zen David Reimer.

Garai berean hasi ziren antolatzen intersex pertsonak. Harrotasunetik eta determinaturik. Hastapen

batean medikuekin hitz egitea posible zela uste bazuten ere, laster konturatu ziren haiekiko “oso bortitzak” zirela eta haien bizipenei “elkor” segitzen zutela.

Horrek guztiak ekarri zuen 2000. hamarkadatik aitzina Hopkins Paradigmaren ahultzea. Consortium Modeloak indarra hartu zuen: 2005ean, Chicagon egin endokrinologo pediateren elkartearen nazioarteko kongresuan abiatu zen interbentzio modelo berria. Protokoloa berrikusi, pazienteen eta medikuen arteko hartu-emanak garatu eta



SEXU KARAKTERE BARIAZIOEN 'DESPATOLOGIZAZIOA' GALDETZEN DUTE, ADIBIDEZ, MOE-K GAIXOTASUNEN SAILKAPENETIK KENTZEA INTERSEXUALITATEA

pertsona intersexualen segipen pertsonalizatuagoa bideratzea zuten xede. 2016an *Journal of Pediatric Urology* komunikabide zientifikoak publikaturiko ikerketa batek argitaratu zuen, ordea, praktikan ez zela aldaketarik. “Intersexualitate”-aren ordez “sexu garapen nahaste” terminoa erabiltzea erabaki zuen urte berean medikuak, unibertsitarioak, ISNAko kide batzuk eta guraso elkarte batzuk biltzen zituen DSD Consortium taldeak, ofizialki estigmatizazioen kontra egiteko. Bariazioak hiru multzotan banaturik dituzte: 46,XX –nahasmen bat ukan arren, emakumezkoak direnak–, 46,XY –nahasmen bat ukan arren,

gizonezkoak direnak– eta bestelako “anomaliak”. ISNAren baitan sekulako krisia eragin zuen eta 2008an de-segin zen. Izendapen patologizatzailea eta “intersexualitate” hitzaren baztertua ez ziren begi onez hartu.

2003an sorturiko OII Nazioarteko Intersex Erakundeak gogorri kritikatu zuen aldaketa. Bastien-Charleboisek ere joko maltzur bat ikusten du 2005eko aldaketan: “Estigmatizazioaren aurka egiteko bidea dela diote, baina berriro ere boterea haien eskuetan atxikitze-ko urratsa izan zen. ‘Benetako sexu’ bat badagoenaren ideiarekin segitzen dute: benetako emakumezkoa edo gizonezkoa dago, gure kasuan ‘nahasmen batzuekin’. Gure arteko elkartasuna hautsi nahi izan dute, esperientzia ezberdinak ditugula sinetsaraziz. Gure gorputzak baliogabetu izanaren bizipen partekatuan eraikia dugu gure identitate politikoa, eta bariazio ezberdinetakoak batzen ditu mugimenduak”.

Denbora aitzina doa eta baimen libre eta informatuaren bermea ez dute lortzen. Sekulako boterea duen autoritatea delako medikuntza eta badakite “inertzia egoera” batean izanik nekez lortuko dutela egoera iraultzea. Horregatik dituzte aliatuak nahi jendartean. Horregatik dira giza eskubideen aldeko egiturekin harremanetan. Bide legegiletik pasako da aldaketa: “Sentsibilizazio lan handia dugu egiteko, medikuntzaren autoritatearen parean uzkur direlako legegileak. Baina hau da bidea, behartuak ez direino ez dituztelako praktikak aldatuko”.

EZ DA ERRAZA NORBERE GORPUTZ INTERSEXUALA MAITATZEA

Bere burua intersexual edo intersex izendatzea ez da urrats erraza. Testigantza anitzetan ikusi daiteke berandu ikasten dutela intersexual direla, gorputz hauen ezabatze-prozesuegatik eta horri buruzko tabua-

gatik –bi elkarrizketatuei dagokionez, batak 31 urterekin eta besteak 38 urterekin ikasi zuen–. Ttipi-ttipi zirenean hasitako operazioak edota hormonoterapiak dira; hitz zientifiko ezezagun batzuek izendatutako bariazioak dira; maiz gurasoekiko harremanean isilduriko kontua da; eta mediku txostena eskatuz gero errefusatua izan ohi zaie. Kontzientzia hartuz gero, guztiak ez dira militantziari lotzen, handiegiak izan daitezkeelako traumak, gorputz anormala ukaitearen sentimendua eta gaizki-zezak. Aktibismoari lotzeko orduan, beste traba bat izendatzen du Bastien-Charleboisek: medikuntzako literatura eskuratzeko, irakurtzeko, ulertzeko eta liseritzeko zailtasunak. Ez da erraza, terminologiagatik, oztopo ekonomikoengatik eta “emozionalki oso bortitza” zaielako hiztegi patologizatzaileen liseriketa.

Hala ere, geroz eta gehiago dira inplikatzeko, batez ere belaunaldi berrietan. Internetek erraztu du

bidea. Asko ekartzen die aktibismoak: “Balio handikoa da, isolamendutik ateratzen garelako, luzaz pentsatu dezakegulako bakarrak garela munduan. Esperientzia partekatzea aberatsa da eta ulertua izateak asko dakar, lasaigarria da. Guretik jartzen ditugu hitzak, eta hori asko da, luzaz estaliak izan garelako gailentzen gaituen autoritatearen kontzeptuez. Noski, toxikoa ere izan daiteke, traumengatik suntsituak daudelako batzuk eta horrek harremanak zailtzen dituelako –konplexua da: despatologizatzeke balio digu, baina aldi berean, begi-bistaratzen digu bizitutako bortizkeriaren heina eta hori gogorra izan daiteke–”.

LGBT komunitatearen parte kartzeko dute intersex identitatea, pairatzen dutena “heteroarauaren emaitza” delako. Gainera, intersex pertsonen artean badaude gayak, lesbianak eta transak. Hala ere, kolektiboen artean elkar entzuteko joera eskasegia dela dio Bastien-

Charleboisek, eta bakoitzarena errespetatuz aitzinatu beharra azpimarratzen du. Identitate politikorik ez inposatzea funtsezkotzat dauka Bastien-Charleboisek eta hitz bakoitza arreta handiz aukeratzeko moduan nabari zaio hori. Horrentzat dute intersexual eta intersex ñabardura egiten –lehenarekin, sexu bariazioan jarriz arreta, bigarrenarekin, identitate politikoan–. Adibidez, kolektiboki ez dute hirugarren generorik aldarrikatzen, intersexual batzuen urruntzea eragin dezakeelako. Baina ez dira ere genero binarismoaren defendatzaile, arrazoi beragatik. Batzuk identitate ez-bitarrean badabilte ere, asko dira gizonezko edo emakumezko identifikatzen: Australiako 2016ko ikerketa batean galdekaturiko intersexualen %75 genero binarismoan kokatzen da.

Gehiago ikasiko dugu jarraian doan elkarrizketari esker. Intimoa eta politikoa juntaturik, lehen pertsonan azaldua zaigulako.



“Binarismo kontu bat da, baina tematze bortitz hori pentsaera heteroarautuak dakar”

Gure galderei erantzutea onartu du Naimak. Intersex pertsonen errealitatea eta borroka azaldu digu, bizipen intimoenei lekua eginez. Ez zaio batere erraza, eta horregatik errefusatu ohi ditu elkarrizketak, barrenak gehiegi inarosten dizkiolako ariketak. Eskerrek beraz. Duela lau urte ikasi zuen pertsona intersexuala zela, 38 urte zituen. Gorputz hauek pairatu inbibilizazio prozesuaz anitz salatzen du datu horrek berak. Orduz geroztik, intersex identitateaz harro, CIA-OII elkartearen dabil militarizatzen, Parisen.

Intersexualitatea definitzeko orduan zertan jartzen duzu arreta?

Gizonezko ala emakumezko gorputzen definizio bitarreen sartzen ez diren sexu-ezaugarriekin –genitalak, gonadak edota kromosomak-sorturiko pertsonak gara. Nazio Batuen Giza Eskubideen Goi Komisarioaren definizioa da, ados gaude honekin eta horrek badu bere inportantzia. Horri gehitu behar zaio esperientzia sozialarena: patologizazioa, medikuntzaren esku-hartzea, diskriminazioa... Esperientzia sozial horrek nau intersex pertsona egiten, bariazio ezberdinak ukanda ere, esperientzia sozial horrek gaitu intersex pertsonok batzen. Medikuntzak, jendarteak eta estatuak balio gabetu naute, eta balio gabetze horrek nau egiten intersex pertsona eta militante.

Zertan da zure definizioa subertsiboa?

Hitzak eman dizkit intersex identitateak: lehen aldikoz medikuntza-terminoak ez diren hitzak jaso nituen. Guk erabiltzen dugu “bariazio” hitza, baina medikuen ahotik balio gabetzen nauten hitzak entzun izan ditut etengabe.



**MEDIKUNTZARENAK
EZ ZIREN HITZAK
ATZEMATEAREKIN
SENTITU DUT
NIRE BIZITZAREN
AITORPENA”**

–“anbiguotasuna”, “malformazioa”, “osasun-arazoa” eta oroz gainetik gaixotasun izenak-. Horregatik da hain zaila pertsona intersexual gisa existitzea, pertsona intersexualak garelako ez zaigulako sekulan erran. Nik eritasun izen bat dut. Sindrome batzuk gara. Medikuntzarenak ez diren hitzak atzematearekin sentitu dut nire bizitzaren aitortpena. Horregatik diot existitzea politikoki existitzean datzala.

Ez bada gehiegi eskatzea... hitz horiek noiz entzun zenituen lehen aldikoz?

2017a zen, *Collectif Intersexes et Alliés* (Intersex eta Aliatuak Kolektiboa) egiturak antolatu Ikusgarritasunaren Hamabostaldiaren baitan zegoen hitzaldi batean. Intersex pertsona batzuk ikusten nituen lehen aldia zen. Intersex definitzen ziren, baina une horretan ez nuen hitz hori ezagutzen. Kontua da nik bizitutakoarekin antza handiak zituzten bizipenak kontatu zituztela... 38 urte nituen.

Elkar topatze horrek badu sekulako balioa. 1990eko hamarkadan sortu zen intersex pertsonen arteko gutasuna. 30 urteko borroka horretako zein une nabarmenduko zenituzke?

Nola ez, intersex pertsonen lehen egituraren sortzea aipatu beharra daukat. 1993an izan zen, Intersex Society of North America (ISNA). Iraultzailea izan zen. Bariazio intersexualak dituzten eta medikuntzaren esku-hartzeak errefusatzeko zituzten pertsona gisa aurkeztu ziren jendearen aitzinera. Lehen aldia zen. Bestalde, 2013ko Malako Adierazpena ere nabarmenduko nuke. Aldarrikapen bateratu bat adostu zuten 30 bat egiturek, diskriminazio ororen bukaera galdetuz eta gorputz-osotasunaren eskubidea, autonomia fisikoa eta autodeterminazioa aldarrikatuz.



Medikuntzaz bi hitz?

Medikuntza ez dago *hors-sol*, gure jendartearen parte da, sistemaren baitan dago. Ezin zaio medikuntzari begiratu politikei eta jendartearen iruditegiei begiratu gabe. Intersex pertsonon patologizazioa eta gure gorputzetan interbenitzea logika patriarkalaren baitan kokatu behar dira; are gehiago, logika arrazista, homofobo, eta osasunean oinarrituriko zapalkuntza baten parte dira. Iazko Bioetika Legeari buruzko eztabaiden eraginez erradikalizatu dugu gure postura. Itxaropentsu ginen, baina, argumentuak eta nazioarteko erakundeen sostengua ukanda ere, indar-harremanean pisurik ez daukagula ohartu ginen. Medikuek bideratu zituzten gobernuaren erabakiak. Baina horrek badauka bere arrazoia: klase beraren parte dira. Jende horiek eskola berdinetatik pasa dira, aisialdi berak dituzte, jatetxe berdinetara doaz.

■ **Medikuek diote operazio teknikak hobetu direla eta zuen bizipenak iraganeko kontu bakan batzuk direla.**

Egiari zor, mediku banintz argudio bera aterako nuen! Ezin garaituzko argudioa da, gezurtatzeko zifrarik ez daukagulako. Daturik ez dauka, ez ditugu aurkitzen, gordetzen dituzte. Haienaz hain segur badira, zergatik gordetzen dituzte? 1979an sorturikoa naiz eta nik ere sinetsi izan dut garai zaharrekoa eta etsiturik dauden bakar horietarikoa nintzela. Badakizu, zaila da beste bizipen batzuen topatzea, pertsona intersexualok ez gaude karrika izkina guztietan. Amak kontatu izan

“

**NIK EZ DUT ARAZORIK
INTERBENTZIOAK NAHI
DITUZTEN PERTSONA
INTERSEXUALEKIN
EDOTA
TRANSEXUALEKIN.
NORBERAREN
ONESPENA BADEINO,
AURRERA”**

dit ttipia nintzela galdetu ziela medikuei bariazio bera zeukaten batzuen ezagutzea. Besterik ez zegoela erantzun zioten. Berriki gurutzatu dut pertsona intersexual bat, nire adin berekoa eta ospitale beretik pasatakoa... Horrela dago gurea. Ni hamazazpi urterekin atera nintzen osasun sistematik, egunetik bihar munera ez nintzen agertu. Ez ziren sekulan etorri nire bila. Etorri balira jakinen zuten ondorioak zein diren niretzat. Baina ez. Teknikak hobetu dira, egia, baina operazioekin segi-



tzen dute. Hobeto mutilatzen dutela erran dezakegu. Oinarrian pertsona intersexualaren adostasun libre eta argitua izatea nahi dugu. Hain zaila da ulertzea? Bide hau nahi dutenek hobeki biziko lukete, eta nahi ez dugunok salbu ginateke. Belaunaldika bakar bat balitz ere, soberazkoa litzateke. Tamalez, askoz gehiago gara. Nik ez dut arazorik interbentzio kirurgikoak edota hormonalak nahi dituzten pertsona intersexualekin edota transexualekin. Norberaren onspena badeino, aurrera!

■ Binarismoa zalantzan jartzen duten gorputzak dira intersexualak.

Kontu handiz jorratu beharreko gaia dugu hau. Gure existentziak ez dira arauen barne, beraz, frogatzen dugu antolaketa bitarra eraikuntza soziala dela. Baina aldi berean, gurea ez da genero-sistema bitarraren aurka egiteko argumentu gisa erabili behar. Pertsona intersexualetan badira bitarrak, ni banaiz adibidez. Sistema bitarra gezurtatzen dutenak pertsona ez-bitarrak dira. Kolektiboan badira ez-bitarrak, beraz ez gara ere binarismoaren ordezkari. Jendartean dauden kategoriak dauzkagu gurean. Guk dioguna da sexu-kategoriak eraikuntzak direla.

■ Heteroaraua kokatzen duzu pairatu indarkeriaren oinarrian?

Argi eta garbi. Pairatu dugun guztia da binarismoaren emaitza. Gizonezkoak eta emakumezkoak behar dira eta hori heteroaraua da. Kromosomi so egin -XY, XX edo XXY nintzeneguz begiratu- eta XX aurkiturik, estereotipa bati segi emakumezko sailkatu ninduten. Binarismo kontu bat da, baina tematze hori pentsaera heterosexualari lotua da: ez nuenez baginarik eraiki zidaten, eta barneragarria izan beharko zuen bagina behar nuen. Hara. Horretan datza nire historia guztia. Operatuz edota hormonak emanez bideratzen dute

binarismoa. Hormonak, bizarra puzarazteko, hormonak titiak puzarazteko... baina inoiz ez zaie bururatu pertsonari galdetzea non kokatzen den. Gordina da haien hiztegia: baginak barneragarria behar du eta zakilak tamaina egokikoa. Heterosexualitatea hori baino zabalago izan daiteke, hori ikusmolde heteroarautu batean gara. Emakume heterosexual "egokiak" eta gizon heterosexual "egokiak" eraiki nahi dituzte.



NIK HAMABOST OPERAZIO ETA 33 ANESTESIA PAIRATU DITUT, ALTA, GURASOEI ERRAN ZITZAIEN OPERAZIO BAT ALA BIREN KONTUA ZELA"

■ Ilusio bat da. Gainera, harreman erreproduktiboak ez dira baitezpada bermaturik izanen.

Erran behar da ahal duten guztia egiten dutela eta sekulako baliabideak jartzen dituztela emakumezkoek haurrak ukan ahal izateko. Emakumezko bagara ez dute arazorik horrekin. Haatik, emakume transexualentzat ez dute nahi... Baina, errealitatean, emakumezko izendatu izanak ez dakar beti aukera. Adibidez, "androgenoekiko sentikortasun eza, partziala edo osoa" izendaturiko barietateetan XY izanik ere emakumezko sailkatuak dira. Ez dute uterorik eta hilekorik -gertatu daiteke ukaitea, baina arraro da-, baina itxura salbatzearen emakumezko kokatuak dira.

■ Interbentzio hauen eraginez, harreman intimo eta sexualak mingarriak izan daitezke. Plazeran ere badu eragina. Hitz egin dezakegu horretaz?


Nirea galdekatzera eraman ninduten arrazoiaren artean dago hori. Benetan diot, egina izan zaidanak nire bizitza osoan du eragina. Hitzak jartzen lortzen dut eta hori da nire orainaren eta iraganaren arteko aldea; edo behintzat bizitu dudana ulertzeko hitz batzuk atzeman ditut. Erreakti, usu ez da bakarrik operazio bat izaten. Nire kasuan, mediku-txostenik ezin izan dut eskuratu, baina erraten ahal dizut hamabost aldiz operatu nautela. Arazoak agerturik, infektatzeagatik ala beste, urteetan errepikatu dizkirate. Dilatazioak ere egin dizkirate, dilatatzeko ez bada ixten delako eraikitako bagina. Hamarnaka eta hamarnaka dilatazio. Sentikortasunik ezaren arazoa ere hor da. Erran nahi dizudana da minek, zikatrizek, sentikortasun ezak...horrek guztiak egunero oroitarazten dizkidala iragan urrun batean buruturiko operazioak. Emakumezko sailkaturik, barnean gorderiko gonadak kendu eta bizi osoan hormonak hartzera behartu duzu pertsona. Ondorio psikologiko eta fisiko oso astunak ditu. Badakit argudio gisa daukatela barrabiletako minbiziaren arriskua. Operatu beharrean, zergatik ez gaituzte hurbiletik eta denboran segitzen? Bakan gertatzen den minbizia eta hobekien sendatzen dena da barrabilena. Kontua ez da hori: emakume batek bere baitan barrabilak ukaitea trabagarri zaie. Ttipi-ttipitak hasten dira gure gorputzak baliogabetzen eta zikintzen. Zehaztu dezakete ez dela larria, baina gurea gaixorik den gorputz bezala tratatzearen bortxaz, iristen da unea non sinesten dugun gaixorik gaudela. Bakan onartzen ditut elkarrizketak, inarosten nautelako, ez zait batere ariketa erraza.

■ Nolatan ez duzu mediku-txostenik?

Normalean, ospitalera sartzera-koan paper batzuk ematen dizkizute eta ateratzerakoan txosten bat badaukazu. Nik ez dut sekulan ezer jaso... eta ez naiz bakarra, konturatu gara kasik gehiengoa garela kasu horretan. Ez da ez daukagula mediku-txostenik... ez digute pasa nahi. Arrazoi kosmetiko bati segi, fisikoki eta psikologikoki lanje-rrean ezartzen gaituzte. Noski, hori ez digute aitortuko. Ez gaituzte “pertsona intersexual” izendatzen, eta hori daukagu zailtasunetan: sindrome batzuk gara, “sexu garapen nahaste” batzuk. Gezurrak ere izan dezake bere lekua. Nik hamabost operazio eta 33 anestesia pairatu ditut, alta, gurasoei erran zitzaizen operazio bat ala biren kontua zela. Horregatik dugu adostasun libre eta informatuaren baldintza aldarrikatzen. Osasunarentzat arriskurik ez den kasuetan, umeei bideraturiko interbentzio kirurgiko eta hormonalen bukaera galdetzen dugu. Nire kasuan hiru urtetan abiatu zituzten –eta berandu da, pentsa emazu!–. Nola emanen nuen nik nire onespén libre eta informatua hiru urterekin?

■ Onespén. Librea eta informatua.

Me Too mugimenduari esker adostasunaren gaia plazararen erdian kokatu da; horri esker gutxik adierazi dezakete adostasunik gabeko sexu harremanak bideratu daitezkeela. Onespénik ez baldin bada, zer dira dilatazioak? Ez dut gustuko termino hori, onartzeko zailtasunak ditut, baina... bortxaketa bati asimilatua izan daiteke. Ume bati objektu bat sartzen diozunean baginan... Ados, medikuntza-objektu bat da, baina *dildo* baten funtzio bera du. Barkatu gordina bazaizu, baina zer nahi duzu erratea besterik? Horrela da eta ondorio psikologiko asko ditu.



IVAN STERN

Ume bat hipospadia batekin sortzen bada (pixa ateratzeko zuloa ez du zakilaren puntan) operazioa proposatua zaie gurasoei, zutik pixa egin ahal izateko –hau da ematen zaien arrazoiak–. Zakila ongi doala begiratzeko... umearen zakila erektzioan jartzen dute, baieztatzeko gogorturiko zakila zuzen doala. Ume bati egiten diote hori... Ulertzen zergatik gabiltzan borrokan? Pentsa zer nolakoak izan daitezkeen ondorioak. Nireari dagokionez, erran dezaket ez naizela nire gorputzean bizi, gorputz hau ez dudala nire sentitzen. Hiru eta hamazazpi urteen artean ez dut sekulan nire sentitu, indarrez egindako etsaminak, harturiko argazkiak, burutu operazioak eta dilatazioak direla eta. Horra.

■ Hala eta guztiz ere, intersex pertsona gisa zutik eta harro

segitzen duzu. Zuen harrotasunak nolako eragin du medikuen artean?

Egoera ez da aldatzen. Aldatzekotan legeak beharturik aldatuko da. Bioetikaren Legearen eztabaida garaian ehun bat medikuk plazaratu zuten iritzi-testu higuigarri bat. Horrek erakusten digu trabatzen ditugula. Ez genuen uste hainbeste presio sartuko zietenik parlamentari, ukaldia bildu genuen.

■ Ze leku du ikuspegi patologitzaileak jendartean?

Medikuntza jendartearen emanazio bat da. Nolakoa da gure jendartea? Zuria, adin batekoa, kultura jakin batekoa eta dirutza hein batekoa. Hori da nagusi, honek gaitu gobernatzen. Jendarteak erakutsi nahi diguna da jendartea. Telebistan agertzen zaizkigun gorputz arautu

horiek dira jendartea. Gorputz eta irudikapen hauetatik at existitze-ko espazio arras guti ditugu. Antolaketa hau gorputz fisikoa baino haratago doa. Naima deitzen naiz, hizkuntza eta erlijio ezberdin batego pertsona arrazializatua naiz, non eta Frantzian –jakizu ez dela festa-giro guretzat!-. Aldi berean, jendartearen parte dira nire familia, nire lagunak... Segur naiz hezteko gaitasuna daukala jendeak, eta bestelako errepresentazio batzuk emanaz gero hartzen dituela. Erregulariki ikusten dudana ezagun bati intersex pertsona nintzela zehaztu berri diot; existitzen ginenik ez zekien eta eskertu nau. Ikusgarritasuna lortzeko gaitza borrokan. Baina borroka bera daramate lesbiana, gay eta trans kolektiboek, baita zuek ere euskaldun gisa. Existitze-ko eskubidea eta askatasuna. Baina existitze hori bera jasanezina zaie. Hala ere, uste dut egoera aldatuz doala.

■ Gazitik eta gozotik badu erantzunak...

Azpitik dator aldaketa –LGBT komunitatetik, ezker-muturretik, gutxiengoak eta gutxituak diren herri-tarretatik–... Nire alde baikorrak dio “arraza zuriaren” bukaeran garelara, gainbehera alde guztietatik ageri delako. Baina horrek ez du erran nahi urrats batzuk atzera egin eta lekua utziko digutenik... Antonio Gramscik dio “mundu zaharra hiltzera doa, mundu berria berandu dabil, eta argi-ilun tarte horretan sortzen dira munstroak”. Mundu zaharrak gorderik atxiki nahi lukeen mundu horietakoa izateaz oso harro nago: intersex pertsona, LGBT komunitatekoa, Frantzian gutxiengoan den kulturakoa... Ez da egunero erraza, baina harro naiz, bai.

■ Pertsona intersexual ez garenok zer dugu eraikitzeko eta zer deseraikitzeko? Seguruena

guraso izateko xedea daukaten batzuk daude irakurleen artean.

Sentsibilizazio lan handia egiten gabiltza, gurasoei zuzenduriko liburuxka bat atera berri dugu. Bariario ezberdinak zerrendatzen ditugu, haien umearen bariarioa zehazki zer den jakiteko. Lasaitzen ditugu, azalduz intersexual izatea ez dela larria, ez dela drama bat, eta umea babestean datzala lehen-tasuna. Nire gurasoak maite ditut eta maite naute, baina gai honetan blokeatu ziren. Babestu nahian utzi zuten eskua sartzen. Engainatuak izan ziren: hitz zientifikoekin azaldu zitzaielako nirea, langileria klasekoak ziren eta parean mediku bat zuten mintzo... Inbisibilizazioarekin bukatu nahi dugu, eta zure erreportajea zentzu horretara doa. Askok da guretzat.



**MINEK, ZIKATRIZEK,
SENTIKORTASUN
EZAK... HORREK
GUZTIAK EGUNERO
OROITARAZTEN DIZKIT
IRAGAN URRUN
BATEAN BURUTURIKO
OPERAZIOAK”**

Formazioak ere bideratzen ditugu. Hamar bat urtez militatu izan dut talde feministetan eta LGBT kolektiboetan. Inoiz ez naiz haien diskurtsoetan ezagutu. Azkenean, nirea ez zelako ordezkaturia. Ez ditut zikindu nahi, ez da hori kontua. Jendeak informatu behar du, existitzen garelara jakiteko gisan. Nik 38 urterekin ikasi nuen intersex

persona nintzela. Oso berandu da. Hartuz goazen ikusgarritasunari esker eta intersex erreferentzien eraginez, espero dut ondokoek ez dutela hainbeste itxaron beharko. Baina ez da erraza. Vincent Guillotek dio “inoiz izendatua izan ez den hori izendatzean datza zailtasuna”. Beraz, norbaitek erraten badizu pertsona intersexuala dela, lagundu ezazu, eta oroz gainetik ez tratatu ume gisa, ez hartu jarrera miserabilistatik. Gurea bezalako kolektiboak hor gaude ere laguntzeko.

■ Zuen borrokan badaukagu lekua ala ez?

Intersex pertsonok gara lehen le-rronan, gu gara aitzinaldea. Baina errealitatean ezin da bakarrik gure esku gelditu, borroka handia delako eta aktibista gutxi garelako. Jendartea guri lotu behar zaigu, hori gabe nekez irabaziko dugulako. Aliatuak behar ditugu. Baina ni hemen izatea bera da garaipen bat. Nire errebantxa badut: existitzen naiz, oraindik existitzen naiz. Interbentzioen ondorioak dramatikoak dira askorentzat eta beren buruaz bertze egitera eraman dezakete. ●



Naima dabilen elkarteak plazaraturiko liburuxka, gurasoei zuzendurik. Gaztelerazko liburuxka argitaratu dute Europa mailako OII, IGLYO eta EPA egiturek ere, “Apoyando a tu hijo(a) intersex” izenekoa.

XAPOKETAN

PUZZLEA

Euskal Herriko ekosistemak eta animaliak ezagutzeko 100 piezako puzzlea

Iñaki Sanz eta Eñaut Aiartzaguena



Gure artean zein ugaztun, hegazti, arrain, anfibio, narrasti eta ornogabe bizi diren eta zehazki non aurkitu ditzakegun ikasiko dugu. Gainera, Euskal Herriko zazpi ekosistemak biltzen dituen liburuxka gehitu dugu.

PUZZLEAREN NEURRIA: 43 x 27 zm

15€

+ 4 € bidalketa gastua.

40 €tik gorako erosketetan, bidalketa doan.

